

XI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna, Zugan itxaroten dutenen indarra,
entzun bihotz onez gure otoitza;
eta Zu gabe gizakiaren ahuleriak ezer ez baitezake,
emaguzu beti zure graziaren laguntza;
zure aginduak betez,
Zuretzat atsegingarri izan gaitezen gogoz eta egitez.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Sm 12, 7-10. 13

*Barkatu dizu Jaunak zure bekatua;
ez zara hilko.*

Samuelen liburutik

Egun haietan honela esan zion Natanek Dabidi: «Honela dio Jaunak, Israelgo Jaungoikoak: "Nik gantzutu zintudan Israelgo errege, eta Saulen eskutatik atera zintudan; zure nagusiaren etxea eman nizun; eta zure nagusiaren emazteak altzoan ipini nizkizun; Israel eta Judako etxea eman nizun, eta hori gutxi balitz, beste hainbeste ere emango nizun.

Zergatik gutxietsi duzu Jaunaren hitza, Haren begietan gaizki dena eginez? Urias etearra ezpataz hilarazi baituzu, eta haren emaztea zeure emazte egin. Horregatik, ez du aldegingo ezpatak zure etxetik, Ni gutxietsi nauzulako, eta Urias etearraren emaztea zeure emazte egin duzulako"».

Dabidek orduan Natani: «Bekatu egin dut Jaunaren aurka». Eta Natanek Dabidi: «Barkatu dizu Jaunak zure bekatua; ez zara hilko».

ERANTZUN SALMOA: Sal 31, 1-2. 5. 7 eta 11

R/. Barka iezadazu, Jauna, nire hobenaren errua.

Bai dohatsu, gaiztakeria barkatu zaiona,
hobena estali zaiona.

Bai dohatsu, Jaunak errurik egozten ez diona,
barrenean iruzurrik ez duena. R/.

Nire hobena aitortu dizut,
nire errua ezkutatu ez dizut.
«Aitortuko diot —esan nuen—,
Jaunari nire gaiztakeria»,
eta Zuk barkatu zenidan nire hobenaren txarkeria. R/.

Zu zaitut ihesleku: estualditik Zuk nauzu babesten,
askatasun pozez inguratzen.

Poztu zaitezte eta alaitu Jaunagan, zintzoak,
egizue pozez oihu, bihotz zuzeneko guztiek. R/.

II. IRAKURGAIA: Ga 2, 16. 19-21

Bizi naiz; ez ni, ordea; Kristo bizi da niregan.

San Paulo Apostoluak Galaziarrei

Senideok: Badakigu gizakiak ez duela bere zuzentasuna Legea betetzeagatik iristen, baizik eta Kristo Jesusengan sinesteagatik; horregatik sinetsi dugu Kristo Jesusengan: geure zuzentasuna Kristorengan sinestetik irits dezagun, eta ez Legea betetzetik. Legea betetzeagatik «ez baitu inork bere zuzentasuna iristen».

Legearentzat hila nago ni, Legeak hil egin bainau; baina horrela Jaungoikoarentzat bizi naiz ni. Kristorekin gurutzean josita nago; bizi naiz; ez ni, ordea; Kristo bizi da niregan. Oraingo gorputzean bizi naizela, Jainkoaren Semearengan dudan sinesmenetik bizi naiz, bere bizia niretzat emateriano maitatu bainau. Ez dut ezezten Jaungoikoaren grazia. Izan ere, zuzentasuna Legearen bidez baletor, alferrik hila izango litzateke Kristo.

EBANJELIOA: Lk 7, 36–8, 3

Aleluia: 1 Jn 4, 10b

R/. Aleluia.

V/. Jainkoak gu maite izan gaitu,
eta bere Semea gure bekatuen bake-opari
bidali zuen. R/.

Irakurgai laburragoa egin nahi bada, [] kako artean ematen den zatia utz daiteke.

*Asko maite izan du,
eta barkatu ere bekatu asko barkatzen zaio.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, farisear batek berarekin bazkaltzera joateko eskatzen zion Jesusi. Sartu zen Jesus farisear haren etxean eta mahaian jarri zen.

Honetan, herrian zen emakume bekatari batek, farisearren etxean bazkaltzen zela jakin zuenengan, hartu zuen gantzu usaingozodunez betetako ontzi eder dat eta, Jesusen atzean jarririk, malkoz buztitzen zaizkion oinak, eta bere buruko ile adatez txukatzen; eta musuka hasi zitzaion, eta usaingozoz gantzutzen.

Bazkaltzera deitu zuen farisearrak, hau ikusirik, honela zioen bere barruan: «Profeta balitz, jakin behar luke Honek, nor eta nolakoa den ukitzen ari zaion emakume hori, bekataria baita».

Baina Jesusek esan zion: «Simon, badut zer bait, zuri esateko». Eta hark: «Esazu, Maisu».

Jesusek esan zion: «Diru aurreratzaile batek bi zordun zituen: batak bostehun denario zor zizkion eta besteak berrogeita hamar. Ez zeukaten nondik ordaindurik, eta barkatu egin zien bie. Bi hauetan nork maiteko du gehien?» Eta Simonek: «Gehien barkatu zaionak, nik uste». Jesusek: «Ondo erabaki duzu».

Eta emakumearengana itzulirik, honela esan zion Simoni: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naiz, eta ez didazu oinetarako urik eman; honek, berriz, malkoz buzti dizkit oinak, eta bere ilez lehortu. Ez didazu laztanik eman; hau, berriz, sartuz geroztik, etengabe oinak laztantzen ari zait. Ez didazu burua olio z gantzutu; honek, berriz, usaingozoz gantzutu dizkit oinak. Honela diotsut, beraz: asko maite izan du, eta barkatu ere bekatu asko barkatzen zaio. Eta gutxi barkatzen zaionak, maitatu ere gutxi maitatzen du». Eta

«Barkatuak dituzu bekatuak».

Jesusen mahaian zeudenak, beren artean esaten hasi ziren: «Nor dugu, ordea, bekatuak ere barkatzen dituen Hau?»

Jesusek, berriz, honela esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

[Geroztik, Jesus herriz herri eta auzorik auzo zebilen, Jainkoaren erreinuaren berri ona hotsegiten. Harekin ziren Hamabiak; baita emakume batzuk ere, espiritu gaiztoetatik eta gaixotasunetatik sendatuak: Maria Magdalena, zazpi deabru atera zitzaizkiona; Joana, Herodesen morroi Kusaren emaztea; Susana, eta beren ondasunekin laguntzen zioten beste asko.]

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna, orain eskaintzen dizkizugun dohainetan
aurkitzen ditugu bizitza honetarako janaria
eta bizi berriaren sakramentua;
egizu, gure gorputz-arimak ez daitezela gerta inoiz ere
hauen laguntzarik gabe.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jaunartze honek, Jauna,
fededunak Zurekin bat direla adierazten du;
ekar dezala
zure Elizan guztiok elkarrekin bat egitea.
Jesu Kristo.